

bidegileak



Bernardo M. Garro (1891-1960)

Egilea:

IGONE ETXEBARRIA

Otxolua Bernardo Maria Garro mundakarrak erabilitako ezizena da, hala sinatzen zituen berak egindako idatziak eta hala ezagutzen da euskal literaturan egin duen bidean.

Idazle gisa idazlan batzuk argitaratu zituen bere garaiko aldizkarietan, *Euzkadi* egunkarian batez ere. Idatziotatik asko itzulpenak dira, bai italiara eta ingelesetik egindako itzulpenak, bai beste euskara mota batzuetatik bizkaierara egindako egokitzapenak. Lanotariko batzuk, aldizkarietan sakabanatutakoak, liburuan jaso eta batuta argitaratu dira edo egingo dira, baina beste asko argitaratu gabe geratu dira, seme-alabek altxor gisa gordeta.



Bernardo Garro Basterretxea *Otxolua* (1891-1960)

Otxolua literaturan ez ezik beste adar askotan ere ibilia da, ordea, kantu, musika, eskulan, dantza, mendi-kontu eta abarretan.

Autodidakta izan zela esan daiteke eta ez dugu lotzen beste idazle batzuekin talde edo belaunaldi batean, bakarka bere bidea egin izan duela esan daiteke, beste euskaltzale batzuekin harremanetan, jakina, baina bere bidea eginez.



Idazlan gehienak *Euzkadi* egunkarian argitaratu zituen



Otxoluaren gurasoak, Jesus anaiaren familiarekin jaiotetxean, atzealdean. Mundaka, 1926



Bernar zutik jaiotetxearen atzealdeko ortuan, 1910 inguruan.
Atzean, gurasoak, erdian, eta osaba-izekoak

Bernardo Maria Garro Basterretxea Mundakan jaio zen 1891ko abuztuaren 22an, Juan Antonio aita eta Maximina ama biak mundakarrak zituela, itsasgizonen familien giroan. Bost neba-arrebatatik bigarrena izan zen. Zaharrena, Juan Antonio, Calahorrako elizbarrutiko kanonigo eta notarioa izan zen. Hirugarrena, Jesus, sendagilea, urte askoan Amurrion mediku egon zen, baina gerra ostean, politika gaiak zirela eta, kartzelan egon ondoren hainbat lekutara bidali zuten zigortzat. Beste biak Cándido eta familiako neska bakarra, Conchita, gazterik hil zena.

Txikitán Mundakako giro euskaldunean hazi zen, beti belarria zoli jarrita itsas

ertzean edo kale bazterretan berriketan egoten ziren emakumeei entzuten. Ordutik ikasi zituen ipuinak, esaerak eta, herriko euskara jator-jatorrean. Eskolan, ordea, beste giro bat zegoen eta han gaztelaniaz egin behar izaten zuen. Hizkuntza biak menperatu zituen elkarren osagarri.



Otxolua ezkerrean, laneko bazkarian, 1947an

Herriko eskolan lehenengo ikasketak egin ondoren, komertzioko ikasketak egin zituen Bilbon, Merkataritza Eskolan. Bilbon ikasle zela ere, ez zuen aukera galdu beste ikasle euskaldun batzuekin bere hizkuntza erabili eta aberasteko. Horrez gainera, euskarazko liburuak zein bertso paper, egunkari eta era guztietako idatziak irakurtzeko zalea izanik, hala hornitu zuen hizkuntzaren ezagutza.

1910ean, 19 urteko zela, Argentinara joan zen. Zazpi urte eman zituen, Buenos Aires eta Rosario, larruarekin lanean. Gardel ezagutu zuen, hark abesten zuen tabernan. Han harremana izan zuen italiarrekin eta beste lurralde askotako jendearekin, eta hala baita haien hizkuntzekin ere. Aita Santi Onaindiak, gainera, jasota dauka Argentinan leku askotako euskaldunekin izan zuela harremana, eta euskara ezberdinak ikasteko aukera ona izan zuela.

Handik bueltan Bilbon jarri zen, Astoreca eta Azqueta etxean lanean, ordezkari, Bilboko

Buenos Aires kalearen 13garrenean. Hori izan zuen lantokia hilarteko guztian eta idazteko txokoa.

Aste barruan Zazpi Kaleetan bizi zen, Somera eta Artekale kaleek bat egiten duten lekuan. Baina Bilbon lan egin eta bizi arren, Mundakari lotuta jarraitu zuen eta hangoa hartu zuen emaztea, Laura, Marcelino Garteiz-Aurrekoa eta Mercedes Barturenen alaba. 1928ko maiatzaren 23an ezkondu eta Bilbora joan ziren bizitzera, Iturribide kalera, baina beti Mundaka eta Bilbo bitartean bizi izan ziren, loturak galdu gabe.

Hiru seme-alaba izan zituzten, Jon Ander, Miren Begoña eta Arantza. Haurrak txiki-txikiak zirela, gerra hasi zenean, ama-umeak



Kurtzioko plazan, atzean, Bernar eta Lauraren bizilekua. Mundaka, 1950

Mundakara joan ziren Bernardo Bilbon geratuta lanean, eta gerra ostean berriro ere Bilbon jarri ziren. 1939 arte Mundakan denbora gehiago eman zuten, seme-alabek Mundakan ikasi zuten eskolan, baina handik aurrera ere asko joan izan dira Mundakara.

Mundakan Kurutzeko etxean bizi ziren, Kurutzio kalean, amaztearen gurasoenean.

Bernardok bekokian orban bat zeukan, betidanik, baina hazi eta, azaleko bizienak jota, begi bat apaldu lehenengo eta gaixotasun horretatik hil zen gero, 1960ko irailaren 14an. Berak esaten omen zuen beti *otxolua* izena erabili eta azkenean *otxolua* izan.

Aita Santi Onaindiari idatzitako gutun batean ematen du horren berri:

Bilbao'tik, 1958 orrillak 23

Aita Onaindia agurgarriari
Larrea'n

Eta Aita agurgarria;

Zure 20 gnko. idazkia jaso dot, eta tamalez diñotsut ezin joan naitekela datorren igandez euskal idazleak or egingo dozuen batzarrerera. Neure bekokiko zorioneko gatxa sendatuteko osapide latz batean jarri nabe, bai, eta orrek galerazoten deust orra joatea.

Alan bere, or artu ziñegien erabagieri zelanbait lagunduteko, gertu nago, J.I., al daidan giñoan. Barrero bere orko pralleen lapikoko gozoa txatauteko nik neban gogoaz, ereti au galdu bearra...!

Euskal agur beroenaz.

Garro'tar Bernarta M.

Aita Onaindia, *Eskutitzak*, Bilbao, 1974, 82 or.



Garro Garteiz-Aurrekoa familia, Begoña alaba zaharraren ezkontzan. Torrontegi hotela, Bilbo, 1960

Bernardo Garro «Gizon ona, alaia, baketsua, mendi eta musika zalea» zela dio Karmelo Etxenagusiak *Euskal Idazleen Lorategia, itz lauz lanean* (Donostia, 1969, 262 or.). Antzeko aipamenak behin eta berriro ikusi ditugu haren gaineko bibliografian. Eta seme-alaben bitartez hartu ditugun argibideetatik ere ondorio berdintsua ateratzen dugu, alaia eta umoretsua zela, gizon bizia eta aldi berean barne-bizi oso aberatsekoa.

Umorearen erakusgarri, Jon Ander semeak gogoratzen du aurkezpen-txartel bat zeukala izena honetara idatzita: *New Backarrick*, ingeles tankeran. Izen hori jarrita, datu pertso-



Arantzazun 1924an

nalekin osatuta zeukan, eta erabili ere egin zuen inoiz.


Hainbat zaletasun zituen: idazle gisa hainbat idazlan utzi ditu, itzulpenak batez ere, baina baita sorkuntzakoak ere.

Musikan gitarra, txistua eta pianoa jotzen zituen. Tangoetan oso ona ei zen gainera, Argentinan egon ondoren, Pampan tresna hori jotzeko duten estiloan, Argentinaren barruan hangoa berezia omen da eta.

Mendizale amorratua zen, Bilbao Alpino Clubeko kidea. Bilbo inguruko mendietan asko ibiltzen zen, Pagasarri, Ganekogorta eta inguruetan. Halako ibilaldietan asko gustatzen zitzaion bidean etxeetakoei galdetzea bertako

berri, etxe eta inguruen izenak eta abar. Behin baserri batera hurreratzean, etxeko mutikoa etxera joan zen arin-arin esanez «Ama, eskeko bat!». Otxoluak barre egiten zuen anekdota hori gogoratzean. Bizkaiko mendien mapa bat egin zuen, eskuratu ezin izan duguna.

Eskulanetan ere ona izan omen zen, umeentzako jostailuak egiten, etxeko zereginetarako edozein gauzarekin moldatzen. Gerra osteko



Otxolua mendizale. Ezkerrean Ganekogortan 1926an, eta atzealdean berak eskuz idatzitako bertsoa

gabezi garaian, bitarteko gutxirekin moldatu beharra zegoenean, aparteko trebezia omen zeukan edozeri itxura emateko.

Egurra landuz txistua berak egiten zuen intsusa egurrarekin, barrua hustu eta lantzeko egur mota hori onena delako. Puru-kutxak ere egurrezkoak zirenean, haiekin irudiak egiten zituen.

Marraskilari agertzen zaigu *Bertolda eta Bertoldin* liburuan, hango azal-barruko irudiak berak eginak dira eta.

Denetarik irakurtzen zuen, liburu, egunkari, bertso, poesia. Seme-alabentzat erosten zituen tebeoak ere lehenengo berak irakurtzen zituen.




Otxolua Txindokin, 1955ean

Hizkuntzetarako erraztasun handikoa zela esan digute etxeok, euskara eta gaztelaniaz gainera, frantses, aleman eta ingelesa zekizkien, denak berak bere kautan landuak, autodidakta baitzen. Etxean aleman ikasteko metodo bat zeukan, Ollendorfena, eta segurutik handik ikasiko zuen hizkuntza hori. Bestalde, ingelesa eta euskararen artean antzekotasun handiak ikusten omen zituen.

Euskal kulturari jakituna izanik, dantzen gainean aholkulari gisa laguntzen zien Bilboko Dindirri dantza-taldekoei. 1949an Guridiren *Amaya* operarako ezpata-dantzaren azalpenak zehatz-zehatz idatzita dauzka, dantzari bakoitzaren pausoak eta haien esanahia argi adierazita. Eta *Txistulari* aldizkarian, 1957ko laugarren hiruhileko alean, «Cómo bailar el auresku» izeneko artikulua argitaratu zuen. Etxekoek gogoratzen dute Gabonetan eta bestelako jaietan etxean pauso batzuk egiten zituela, eta Mundakan San Pedroetan aureskua plazan egiten omen zuen gaztetan.

Kiroletan ezer nabarmenik jaso ez badugu ere, etxean erremonteko xistera bat zeukaten, zaletasun horren erakusgarri.

Azkenik, seme-alabek esanda dakigu asko joaten zela Bidebarrieta kalean zegoen Juventud Vascakoen egoitzara. Hala ere ez zen politikan nabarmendu, diputatu izateko eskaintza izan arren uko egin zion.



Aurreskuan egiteko azalpenak, testu-irudiak Otxoluarenak, 1957



Bernar ezkerrean lagun batekin. Mundaka, 1927



Irakurle asperrezina

Otxolua autodidakta izan zen. Bere kontura hizkuntza eta literatura lantzeko ariketa batzuk berak utzitako materialetan ikusi ditugu. Esaterako, beste euskalki batean idatzitako obra ezagun asko bizkaieraz jarri zituen. Ariketa hori behin eta berriro egin zuen, argitaratu gabe baina etxean ondo gordeta dituen materialei erreparatuz gero. Batzuetan «Bizkaiko euskaraz» atondu duela dio, beste batzuetan «oraingo euskaraz», ordea. Horretarako lehenengo mailako idazleen idatzietara jo zuen, hona guk eskuartean erabilitakoak.

Orixek euskaraz ipinitako *Mireio* lanetik Orixeren sarrera eta lehenengo kapitu-



Bernardo eta Laura ezkondu ziren urtean, 1928an

luko zati bat ditu Otxoluak bizkaieraz jarrita. Kardaberazen *Senar-emazte santuak* liburutik sarrera eta lehenengo hiru atalak bizkaieratu ditu, *Deun Isidor aitzurlari eta aren emazte done Miren-en bizitza* izenburuarekin. R.M. Azkue-

ren *Batxi-Guzur* eta *Txirristadak* lanen zatiak dauzka, berak dioenez «*Euskaltzale* aldizkingitik berezi ta puzka bat atonduak». Mendibururen *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitz-gai* lanaren 1904ko ediziotik *Yosu'ren maite-nekeei dagokiezan zenbait otoitz-gai* izenarekin, irakurleari eskainitako sarrera eta lehenengo atala moldatu zituen. J.A. Uriartek prestatutako *Visitak (Jesus sacra-mentuari, Ama doncella Mariari eta aita S. José gloriosuari Visitaac illaren egun guztietaraco S. Alfonso Ligorioac iminiac)* lanari *Ikerraldiak* izena jarrita (osorik *Yosu oteunduari eta Miren Ama nekutsari Ikerraldiak* ilaren egun guztietarako *deun Albontsa Ligorio'k iminiak*) txatal nahiko luzea egokitu zuen. L.L. Bonapartek atonduta Londresen 1857an argitaratutako *Dialogues Basques: guipuscoans, biscâiens; labourdins,*

souletins lanetik lehenengo zazpiak ematen ditu gaztelaniaz eta bizkaieraz: *Alkarrizketak* (Bonaparte'tar Koldobika-Luken Bakaldungaiaren aginduz Iturriaga'tar A.P.'k gipuzkeraz, Uriarte'tar Y.A. Abak bizkaieraz, Duvoisin'dar Buruzagiak lapurdieraz eta Intxauspe'tar Yaupariak zuberoraz euzkeralduak). *Kisto'ren antz-bidea* (Imitazioa) idazlanean Tomas Kempisen lana du jatorrizkoa, eta euskarazkoa «Nieremberg aba yosulagunak españeraz, Terese deunaren Pi aba karmeldarrak bizkaieraz, Olabide aba yosulagunak gipuzkeraz eta Léon yaupariak benaparreraz eginikoak eredutzat arturik» egin omen zuen. Testua gaztelaniaz eta euskaraz dago. Olabideren *Itun Berria* lanetik hasierako sarrera-oharrak eta San Mateoren ebanjelioaren hamargarren kapituluraino dauzka bizkaieratuta. J.J. Moge-



Euskal idazle askoren idatziak bizkaieratu zituen


len Baserritar yakitunaren etxeko ikastolea ere eguneratu zuen. Eta azkenik, Añibarroren *Escu-liburuaren* zati bat dakar *Esku-idaztiñoa* izenarekin.

Idatzi guztiok eskuz daude, bakoitzak koadernoko 22 orri inguru hartzen dituela, hasierako azala eta guzti. Idazleen artean kutunenak zeintzuk zituen jakiteko modu bat da hori.

Horiez gainera, «*Kirikiño*-ren idazlan osuak Garro'tar Bernarta M^ak *Euzkadi* eguneroko izparringitik idatzaldatuta» 200 orriko koaderno mardula dauka, eskuz idatzia. Izenburuan esaten denez, kopia egin ditu 1913ko otsailaren 1etik epaila edo martxoaren 17 arte Kirikiñok egunkari horretan idatzitako artikulu guztiak. Gainera, hasieran dio «1^ogo Ingurraztija» dela, beraz, edo gehiago egin

zituen edo, gutxienez, gehiago egiteko gogoia izan zuen.

Beste material jakingarri batean honela ematen du izenburua: «*Estemanaste*. Garro'tar Bernarta M^ak, euzkerazko idazlan batzuren arterik geyen atsegin izan yakozenan egiñiko berreikiya». Lehenengo zenbakia 1929ko hazil edo azarokoa dela dio azalean, guk baina, ez dugu besterik ezagutzen. Poemak, ipuintxoak, artikuluak dira, hainbat idazlerenak, argitaratu ziren moduan kopiatuta, hori bai, denak *Euzkadi* egunkarikoak.



Otxoluak eskuz idatzitako koadernoetako bi



Otxolua Mundakako berriemaile. *Euzkadi*, 1931-02-19

1950ean euskaltzain urgazle izendatu zuten. Idazten hasteko aukera Kirikiñok eman zion, 1924 inguruan esaldi palindromikoen lehiaketa eratu zuenean. Garrok aipamena lortu zuen, pilotxo osotuta. Handik aurrera Mundakako berriak bidaltzen zituen *Euzkadi* egunkarira, herriko berrien errematetzat ipuin, jazoera edo edesti-txatalen bat gehituta. Bertsoz ere egin zituen olerki eta alegiatxo batzuk *Euzkadi* eta *Euzkerea* aldizkarietan, berak sortuak doinu ezagunen gainean.

Euskaltzale gisa Kirikiñorekin harremana izan zuen esan bezala. Alabak gogoan ondo gordeta dauka Urkiolara

oinez osterara egiten zutenean, Kirikiñoren etxean geratu eta gereziak ematen zizkietela.

Bestalde, badakigu bera Bilbon bizi zen etxe berean bizi izan zela Orixeko, azpiko etxean. Auzoak izanik, pentsatzekoa da harremana izango zutela. Orixek esana du lagun eta irakasle zuela Otxolua, Euskal Herri guztiko idazleen artean txukunenatarikoa.



Bernar eta Laura semearekin,
Begoñako Txakolinean, 1931n

Hala ere, harremanik estuena Resurrección Maria Azkuerekin izan zuen, *Don Re*. Horrek ez du esan nahi beti bat etortzen zirenik euskara kontuetan, semeari Jon Ander izena jartzean «Zer esango deust don Resurrecciónek?» esaten omen zuen adibidez.

Euskaltzaleen artean aita Villasanterekin harreman handia izan zuen eta baita aita Santi Onaindiarekin ere, hark argitaratutako eskutizetan ikusten denez.

Verdes Atxirika familiarekin harreman handia zeukan, bezero zen haien liburudendan. Lanen bat egiten zuenean, ez zuen dirurik nahi ordaintzeko, nahiago zuen liburuak lortzea. Liburuzalea zen, etxean zeuzkan aleak ikustea



baino ez dago, atzerriko liburuetan edizio dotoreak erabili izan zituen.

Idazle gisa Otxolua izena zerabilen. Eusebio Erkiagak esanda dakigu izen hori zertatik aukeratu zuen: «Bere euskal izenorde *Otxolua*z behin baino sarriagotan adierazo eustana. Arean bere, euskeran *nil/neu, eketa* eta *neure burua* hitzak ditugun arren, *neu* edo *yo* esanguraz, gaztelaniaz *el tuerto* esan ohi dabenez, berak be, horixe zertu eban, eta hizkerak-aldakiz *otxolua* berbea beretzakotu».

Euskara zalea izanik ahalegin handia egin zuen euskara mota guztiak lantzen, baina berak bizkaieraz idatzi zuen bere produkzio osoa.



Otxolua hiru seme-alabekin, Bilboko Arenalean, 1938an

Bernar eta Laura. Enpare, Bermeo, 1934

Bai lan argitaratuak bai argitaragabeak bizkaieraz idatzita daude, horietako asko jatorriz beste euskalki batean egin eta berak bizkaierara egokituta.

Euskara ereduari dagokionez, herri-hizkera guztiz menperatzen du, elkarrizketa bizi-biziak, esaerak eta hizkuntza erregistroak ondo menperatzen ditu eta oso aberatsa da alde horretatik. Horrez gainera hizkuntza zaharra, arkaikoa, idazle klasikoena ere pitean-pitean txertatzen du, baita beste euskalkietako hitzak ere. Herrikoa da eta berrizalea, beraz, iturri bietatik edaten du, bere garaian zegoen bi-koiztasunaren erakusle. Aranatarren euskara garbiaren eredu bereganatu zuen bete-betean, eta testuak neologismoz beterik daude, irakurlearentzat astunegi izateraino. Hori da haren idazlanen gainean aurkitu dugun kritika bakarra.

Hona Lizardiren iritzia:

Ona, ezin polikiago ari dan idazle bat. Asteazkenero, uts-egin gabe, arki dezakezute *Euzkadi*-ko «Euzkel Atalan»n *Otxolua*-ren idazki mamia, Mundaka'ko berriez ta zenbait goxoki geiagoz ornitua. Maiz, berebiziko ipui irakurgarriak ingeleraatik txukun-askirik itzuli oi ditu. Oiek bilduz-bilduz noizpait idaztitxo bat osatze aal bazeneza, elitzake makala aldarte beltza argitzeko. Bizkaiera giartsu-egokia oi darabil, ta itz-aukeratze ta are asmagintzan ere zolia da. Euskerak Bizkaia-aldean ditun idazle bikañenetakorik irudi zait. (*Itz-lauz*, 1934, 88 or.).

Era askotako lanak idatzi zituen. Kopuruari begira gehienak itzulpenak dira, baina atzerriko itzulpenen ondoan beste euskalki batzuetatik bizkaierara egindako moldaketak aipatu beharko genituzke. Hala ere, sorkuntzako idatzi batzuk ere baditu, bai narrazio bai poema edo bertso gisa. Idazle ugaria dugu guztiz, baina Gerra aurrean, haren ostean ez du testigantzarik batere utzi. Beste askorentzat moduan, Otxoluarentzat ere Gerra Zibilak etena ekarri zuen euskalgintzan eta letretan orokorrean.



Otxoluaren seme-alaba zahar biak, aitita-amamak, eta Teresa jagolea. Mundaka, 1934

Itzulpenak

I. Bertolda'ren maltzurkeri zurrak eta Bertoldin'en txaldankeri barrengarriak, Verdes Atxirikarenean (Bilbao, 1932). Eta Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa (Bilbao, 1983), Adolfo Arejitak egokituta.

Giulio Cesare Della Croce (1550-1609) italiarrak idatziriko liburu bi dira. Berez, bi kontakizun horiek Cacaseno deritzan beste batenarekin batera zabaldu izan dira, baina Otxoluak berak sarreran dioenez, «lizunkeri sundadun berein gauzatxu dakar txaldankeri asko ta zuhurtasun ez hain askoren tartean» eta horregatik ez ditu hirugarren pertsonaia horren ibilerak euskaratu.

Bertolda herriko maila apaleko jendearen ordezkaria da, haien ohitura, esan eta siniskerak batuta. Alboin longobardarren erregearen


balizko erresuman kokatuta dago kontakizuna. Hara heldu da Bertolda, «esteriaz gizon txikarra zan; burua handia eban eta pirloa baizen biribila; bekokia, kunkurra ta tximurrez betea; txingarra lakoxe gorriak zituan begiak; zurdea baizen luze ta latz bepuruak; belarriak, astoenen gainakoak; ahoa, handia ta oker samarra, beheko ezpana zaldia lez dindilizka ebal». Bertolda bizkorra, xelebrea, azkarra da, eta horregatik erregeak asko estimatzen du, ez ordea erreginak. Hala ere, Bertoldak beti asmatzen du abenturetatik ondo irteten. Haren emaztea ere ez da atzean geratuko, hura ere zuhurra eta argia da.

Bertoldaren jakinduriak herri-jakintza eta pasadizoetan dauka iturria. Zintzoa da, zintzotegia, erregearen gorteko giroan.

Bertoldin Bertoldaren semea da, aitaren kontrakoa, hura azkarra bazen hau leloa baita. Aitaren oroimen onak eraginda erregeak gortean hartuko du, haren esan leloak barrengarri direla.

Hamazazpigarren mendeko idazti barrengarri honek entzute handia hartu zuen, Italian ez ezik Europa osoan ere. Euskaldunentzat ere irakurgai egokia izango zela eta, euskaraz jarri eta *Euzkadi* egunkarian argitaratu zuen Otxoluak zatika, 1931-32 bitartean. Eta ondoren liburu gisa.

Berak nahi zuen lan horren bidez Bizkaiko euskarako testu eredugarria erakutsi eta aldi berean hizkuntzaren aldetik didaktikoa izatea, irakurleentzat euskara lantzeko tresna izatea.



Bi edizioen azalak, 1932koa Otxoluaren marrazkiarekin, eta 1983koa

Alde horretatik, kontakizuna bera ia-ia aitzakia bihurtzen da euskarazko esamolde jator, esaera, sinonimo, elkarrizketa bizi eta antze-koak zabaltzeko.

Itzulpenari dagokionez, Otxoluak bizkaiera ondo ere ondo ezagutzen zuen, baita hizkuntza baliabide eta espresabideak ere. Haren idazlanak aztertu dituztenek benetako maisutzat daukate aditzaren jokoan, hiztegian eta esaeretan. Liburu honetan hain zuzen, esaera moduko asko eta asko daude, eta Otxoluak jakin izan zuen hori euskarara ekartzen. Mikel Zaratek esan zuenez «Euskeratu barik, euskaldundu egiten ditu beste hizkuntza batzuetako idazlanak».

Akats bat ere badauka, garbizalegia dela eta nahastean darabiltzala berbarik garbizaleenak eta arkaismoak, hango eta hemengo hitzak eta euskalki guztietako esaerak. Ondorioz ulermen aldetik zaila egiten da.

Irakurgaien ostean 52 orriko hiztegia dakar, testua irakurtzen laguntzeko eta irudiak itzul-tzaileak berak egindakoak dira.

2. *Ixtorio-Mixterio / Ipuin-Mipuinak*, Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1989. Jean Barbierrren *Ixtorio-Mixterio* ipuin sorta da bizkaieraz, *Ipuin-Mipuinak* izenarekin, *Euzkadi* egunkarian zatika argitaratua. Jean Barbierrek (Donibane Garazi 1875-Senpere 1931) *Gure Herria* aldizkarian argitaratu zituen ipuinok, 1921 eta 1925 bitartean. 1931n denak bildu eta liburu batean argitaratu zituen hiru multzotan



Bertolda eta Bertoldin-en lehenengo ediziorako Otxoluak egindako marrazkia



Otxoluak eskuz egindako azala eta 1989ko edizioarena

sailkatuta, *Légendes Basques d'après la tradition* izenburuarekin. Liburu frantsesez dago, ondoan euskarazko itzulpena duela. Otxoluak, Barbierrek behe-nafarreraz emandako ipuin horiek, bizkaieraz jarri eta *Euzkadi* egunkarian argitaratu zituen, aldaera biak elkarren ondoan jarrita, 1933-1934 bitartean. Horiek guztiak liburu batean batuta argitaratu zituen Labayru Ikastegiak hizkuntza aldaera biak elkarren ondoan direla.



Abere dontsuak izenarekin Otxoluak itzulitako liburua

Horiekin batera Barbierren *Supazter Xokoan* ipuin bildumako beste ale bat eta Mayi Ariztiak batutako beste bat ere hartu ditu Otxoluak, denak herri-ipuinak, eta *Ipuin-Mipuinak* sorta berean txertatu.

Liburuak lau atal ditu, lau ipuin-sorta: Laminak, Josu Jauna eta Kepa Deuna / Jesus Jauna eta Jon Doni Petri, Ipuin-mipuinak / Ixtorio-mixterio, Lau ipuin Axularretaz.

Herri-ipuinak dira, guztira 56, Barbierrek han-hor-hemen jasoak eta berak apur bat mol-datuak gero.

3. *Abere dontsuak* (*Euzkadi*, 1936). Cecily Hallack idazle ingelesak idatzitako *The Saints' Animals' Annual* (Londres, Burn, Oates and Washbourne Ltd., 1932) liburuaren itzulpena egiten hasi zen. 1936an 29 atal argitaratu zituen *Euzkadi* egunkarian. Hala ere ez zuen liburua amaitu.

Bost neba-arrebako familiak etxea aldatu du, eta bizileku berrian umeek gauza harrigarri bat aurkitu dute, larunbat gauetan animalia mota asko elkartzen direla eta elkarrekin hitz egiten dutela. Animaliak poztu egin dira etxean umeak bizi direlako. Animaliak bereziak dira, ordea, santuak dira. Umeak pozik daude haiekin eta tratu bat egingo dute, astero elkartuko dira animalia bakoitzak ipuin bat esateko, beti hari lotuta dagoen santuaren bizitzarekin zerikusia duela. Era berean, umeek abere horren gaineko ipuinen bat esan beharko dute. Esaterako, lehenengoa ipuina kontatzen bildotsa izango da, Jaungoikoaren bildotsaren omenez. Hurrengoan sugeak,



Senar-emazteak, hiru seme-alabak eta aitita Marcelino. Egirleta-Santo Domingo, 1941

San Patriri lotuta, hurrengoan otsoak kontatuko du San Frantziskok bizimodu txarretik nola atera zuen... Hona Lehoiaren ahotan proposamena:

–Zer deritxozue honan atonduteari? Ara: Larunbat gau bakoitzean hautuko dogu gure arterik ipuina nok esan, eta hurrengo larunbatean haxe izango dogu ipuin-esale. Honez ganera, berberak egin behar izango dau arrotz-buru bere, eta arrotzaz adeitsu izan behar izaten danez, zuek, ene umeok, aste bitartean aukeratu zinegie harek gogokoien izan egizan ipuinetarik bat edo beste hemen geure artean esan edo irakurteko. Ba al gara?

Buztan, hanka eta erpe eraite orokorra izan zan baietzekoa esan guraz.

Jatorrizko liburuan hamabi gau ematen dituzte horrela, baina itzulpena zortzigarren gauera arte dago eginda, hortik gorakorik ez zen argitaratu eta ez dago arrastorik Otxoluak gehiago egin zuenik.

Lan honetan ere ahalegin apartekoa dago hizkuntzaren aldetik didaktikoa izateko, animalien ahotan ipintzen diren esaerak eta hitzak hala-koak dira eta. Ingalaterrako gizartean girotuta daude kontakizunok eta, tartean txertatzen dira idazle ingeles ospetsu askoren lanak, gehienak poemak, hala nola William Blake, Katharine Tynan, G.K. Chesterton eta H.W. Longfellow. Horiek denak Otxoluak euskaratu egin ditu.

Testua arina da irakurtzeko, ipuin laburrak dira egun bakoitzean esaten dituztenak eta asko aldatzen da gaia.



Otxoluak idazteko erabiltzen zuen luma

4. *Pizti-patariak* izeneko lana ere itzulpena da, eta aurrekoen moduan *Euzkadi* egunkarian argitaratu zen 1934an. Oraingoan ere abereak ditu idazgai, baina ipuinetan barik euren alderdi biologikoan. Atalik atal pizti baten gaineko berriak ematen ditu: euskarazko izenak, ezaugarri fisikoak, bizimodua eta ohiturak. Lana amaitu barik dagoela ematen du, baina hainbat animalia berri ematen du: azeria, basakatua, azkonarra, ogigaztaia, katakusa, kata-mielgea, udoa, ugaberea, potoxa, kata-jinetea...

5. Luzeenak aurreko horiek izan arren, egunkari berean beste lan batzuk ere atera zituen.

1932an Eça de Queirozen ipuin bat argitaratu zuen hiru ataletan, «Alatz aren samurra...!» izenarekin.

Hurrengoak ingelesetik itzuliak dira, ez jatorrizko testua ez egilea zein den argitu gabe.

1932an *Koldobika* izeneko argitaratu zuen, ingelesetik itzulita hau ere. Hamar ataletan pertsona horren kontakizuna ematen du.

Hona Lauaxetaren oharra lehenengoaren amaieran: «Luzetxuba izango dan lan au, ebagi ta gorde biar leukae askok. *Otxoluaren* idazlanak zer irakatsi andijak daukez. L».

1934an *Luki jaunaren ibillerak* izenarekin eman zuen beste lan bat atalka. Oraingoa Luki azeriaren eta Ulear otsoaren ibilerak kontatzen dituen narrazioa da.

6. Itzulpenetan antzerkira ere jo zuen. 1935ean bi eman zituen atalka, betiko moduan *Euzkadi* egunkarian: *Saña* eta *Kurutze eginda dagon lekuan* bietan Ipar Ameriketako beste antzerki batetik euskaratuak eta ekitaldi bakarrekoak direla esanez. Biak daude itsasoko bizimoduarekin lotuta eta ekintza XIX. mende amaieran gertatzen da.

Horrekin batera, eskuz idatzita dauzka beste 34 orri testu ingeles batetik berak euskaratuta, baina hasierako hiru orriak falta dituen ez dakigu zein den.

7. Bibliografietan beste lan batzuen aipamena aurkitu dugu, beraz, baliteke lan gehiago egin izana Garrok. Guk ez ditugu eskuartean izan, dena dela denak ekarriko ditugu hona.

Alde batetik, iturri batetik baino gehiagotik heldu zaigu *Lau Ebanjelioak* lana euskaratu zuela, Goma kardinalak eginiko *Evangelios concordados* bizkaieraz jarrita, Olabideren *Itun Berria* oinarritzat hartuta. Olabideren lanaren zati bat bizkaieratuta aurkitu dugu, ez beste hau, ordea. Horren antzera, *Abere Ipuñak*, *kontu-kontari*

esanak izenburuduna, ingelesetik euskaratu zuela irakurri dugu. Honen berririk ez dugu beste inon aurkitu, baina izenburuari erreparatuta eta jatorrizkoa ingelesekoa zela kontuan hartuta, *Abere Donsuak* izenarekin *Euzkadi* egunkarian argitaratu zenaren itxura dauka. Baliteke egileak behin-behineko izenburu hori jarri eta argitaratzeko orduan aldatzea. *Ipuin-Mipuinak* izenburuarekin agertu zenak, adibidez, koaderno batean honetara dauka jarrita azaleko testua: «Jean Barbier, *Eskual-Herriko Ichtorioak (Euzkal-Erriko Ipuñak)*, Izkelgi bitan; Lapurdieraz eta Bizkayeraz. Bizkayeratzallea Garro'tar Bernarta M^a, 1933».

Beste lan baten berri ere izan dugu, *Euskalerriko abere-piztiak* izenekoa, esanez espainieratik eta ingelesetik euskarara egokitu zituela. Horren argibiderik ez dugu inon aurkitu, ez argitaratuta ez etxekoen ondarean. Edo *Pizti Patariak* izenekoa bera da?



Bernar eta Laura Loiolako Santutegian 1956an

Sortzaile

1. «Bijar Doniane-ra» (*Euzkerea*, 1929) narrazioa da Garroren sorkuntza-lanen artean nabarmenena. San Joan bezperan itsasoa zartzu eta herriko txalupak portura sartu ezinik daudela, herriko gazteak txalupa batean joan dira falta direnei etxera itzultzen laguntzera. Denak bizirik atera direla eta, «Bijar Donianera!» promesa egin dute. Baita bete ere, goizaldean, ohitura den moduan, Gaztelugatxera joan dira herritar gehienak santuari eskerrak ematera.

Testuak Joseba Goikoetxea *Goikoren* irudi txukun-txukunak ditu, eta 1929an liburuxka

moduan argitaratu zen Bilbon Pizkundia erakundearen ardurapean.

Narrazioan itsasoko bizimoduaren gogorra nabarmentzen da, tartean maitasun istorio bat dagoela, Txomin Agirreren *Kresala* nobelaren antzera. Bizi-bizia da, itsasgizonen kementa eta ausardia goratzen du, baina baita emakumeena ere, kasu honetan emakume bat baita aurrendari egiten duena.

2. Itzulpenak baino gutxiago bada ere, artikulua ere idatzi zituen Otxoluak. Era askotakoak gainera, dela ipuin modukoak, dela hizkuntzaren gainekoak, dela euskarazko liburu buruzkoak *Euzkerea* aldizkarian argitaratu



Garrotarrak, gurasoak, bi alabak eta haien senargaiak, Laidako hondartzan, 1958an

zituen batzuk, adibidez «Voronoffek be ezin duana» (1929), «Ortuzar'tar Errobusten jau-parija» (1929). Baina batez ere *Euzkadi* egunkarian aurkitu dugu sorta polita, hona adibide apur batzuk: «Gomutetan» (1931), «Maitasunak ondu» (1932), «Euskaldunak poemari buruz» (1935), «Euzkerearen arerioak» (1935), «Euzkeldun barri bateri» (1935).

3. *Euzkadi* egunkarian Mundakako kronikak egiten zituen, Kirikiñok lekuan lekuko jendearekin eratutako berri-emaile sarearen barruan.

4. Olerkiak han-hor-hemen sakabanatuta dituela irakurri dugu bibliografian, bai berak sortuak bai ingelesetik eta portugaleratik

itzuliak. Halako bat *Olerti* aldizkarian argitaratu zuen euskaratuta, «*Lourdes'ko Album-a*» P. Ramón Cuérena, berak dioenez *Malagako Caracola* olerki-aldizkaritik hartua. *Euzkadi* egunkarian ere bat baino gehiago ditu.

Eta horrez gainera kantuen letrak egin zituen. Txistua, gitarra eta pianoa jotzen zituzenez gero, gazteek kantatzeko behar zituzten letrak berak jartzen zizkien. Hona paperetan aurkitutako bat:

Joan nintzan montera

Joan nintzan, joan nintzan
montera,

Monte zala *mendia*.

Ikusi neban, ikusi neban

pájaro

Zala *txoria*.

Jaurtigi neutsan, jaurtigi neutsan
piedra zala *arria*,

Atera neutsan, atera neutsan

Odol *sangre* gorria.

Txin-txin, txilibitu txoria.

Txoritu dantzari papo-gorria,

Txin-txin, txin-txin

Jaizu konata,

Txori-saltsia guztiz ona da-ta.

Txibirin, txabaran,

Maritxu Arantza,

Basi, basi, saltsan orrantza.

Txibirin, txabaran,

Txibirin Jon Ander,

Garbitu plater eta baster.



«Bijar Donianera» narrazioaren hasiera

Hizkuntzalari

Lehenago ere esan dugu mendian ibiltzen zenean Otxolua leku, etxe, soro eta basoen izenak galdetzen ibiltzen zela bidean aurkitutako jendeari.

Horrez gainera, aldizkari ofizialak goitik behera begiratzen zituen etxeak hustu edo maizterrak botatzeko aginduak iragartzen zirenean etxe-izenak eta toponimoak jasotzeko.

Bibliografiarekin osatutako informazioa erabilita, azterketa luze-sakonak egin zituen, euskal toponimiari buruz. *Euskera* aldizkarian

«Nombres genéricos de “río” en la toponimia vasca» izenburuarekin hiru artikulu mardul ditu. «Sobre algunas etimologías. Ensayo sobre la propiedad comunal en la toponimia vasca» izenekoak *BRSVAP* aldizkarian argitaratu zuen, Aurtenetxe izenaren jatorriaz eta esanahiaz, dokumentazio asko eta askorekin hornituta.

Baina argia ikusi duten lanotatik aparte, beste batzuk ere egin zituen arlo horretan: «Garro, algunas notas sobre el origen y armas de este apellido» lanean, hainbat informazio jasota dauka, Lapurdiko jatorria duen abizenaren gainean. «Pro-toponimia bilbaina» izenekoan, Bilboko auzo, auzune, etxe-sorta eta antzekoen izen jatorrak aholkatzen ditu.



Otxolua Mundakan, 1930ean



Pagasarrin 1959an



Begoña, Arantza eta Jon Ander, Otxoluaren seme-alabak. Bilbo, 2006

Eskerrak

Bihotzez eskertzen diegu Bernardo Garroren ondorengoei lan hau egiteko emandako laguntasun, informazio, dokumentazio eta argazkiengatik. Bernardoren argazkiak denak dira seme-alabek utziak, eta baita eskuizkribu eta argitaratugabeko materialak ere.

Lan hau egiten ari ginela, Bernardoren seme-alabekin bigarrenez elkartu eta hamabost egunera jakin genuen Begoña hil egin zela. Bat-bateko gaixoak eraman zuen hiru egunetan. Berak aparteko harrotasunez gogoratzen zuen aitarekin zerikusia zuen guztia, eta eskuzabaltasun osoz eman zigun haren berri, argazki, oroitzapen eta eskura zeukan informazio guztia. Pozik ikusiko zuen argitaratuta.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzazatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Garro Garteiz-Aurrekoa familiari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2007ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Gorane Intxaurre

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 978-84-457-2617-4 (Lan osoarena)
978-84-457-2619-8

L.G.: BI - 2587-07

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística